

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA

**Ebazpenaren jakinaraztea. Espediente zenbakia: 169/16 (eta hari metatua, 170/16 zenbakiduna)**

Beherago aipatzen den erreklamazio ekonomiko-administratiboaren prozedura dela-eta, administrazio egintza bat eman da. Egintza hori ezin izan zaio jakinarazi, ordea, interesdunari, espedientearen jasota dagoen helbidean, nahiz eta derrigorrezko bi jakinarazpen saiakerak egin diren.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren prozedurari buruzko arautegiak (2/2007 Foru Dekretua, urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena) 23. artikuluan eta Arabako zerga orokorrari buruzko arauak (6/2005 foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunari dei egiten zaio Lege eta Administrazio Erakundearen bulegoetan (Probintzia plaza, 14. 4. solairua - Gasteiz) 08:15etik 14:30era bitartean, ager dadin, jakinarazpen bat baitu jasotzeko. Horretarako, hamabost egun natural ditu, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Epe horretan agertu ezean, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da lege ondorio guztietarako, epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hartzailea: 16.226.620-M.

Erreklamazio zenbakia: 169/16 erreklamazioa (eta hari metatua 170/16 zenbakiduna).

Administrazio egintza: ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 13a

*Idazkaritza*

*RAQUEL M<sup>a</sup> MARQUÍNEZ REVUELTA*